

Palestinako dema estadioan jokoan

Koldo SAGASTI

Bihar Gazan ez dago eskolarik, ez baita geratzen joango den umerik». Hori eta bestelako perla batzuk utzi zituzten Maccabi futbol taldeko zaletuek duela hamar bat egun Amsterdamera egindako bisitan. Hamaikako israeldarra Herbehereetako hiriburuan zen jokatzekoa, Ajaxen kontra, eta jarraitzaile sionistak hiriko kaleetan gora eta behera nabarmen geratu ziren, kantu eta lelo arrazistak aho batez abesten. Baina ez hori bakarrik; bidean topatu zituzten bandera palestinarrak ugari eratu, herritarrak jipoi-tu, eta txikizioa eragin zuten ibilbide makabroan zehar. Estadio inguruetan tentsioa areagotu egin zen; hainbestearino, ezen, azkenik, bisitariek bila zebil-

tzan eskarmentua jaso baitzuten. Odolkiak ordainetan. Pelikula ez zaie arrotz egin Bilboko auzokide askori. 2022ko maiatzean izan zen. Hapoel Holon saskibaloia taldeko za-leek, Miribillatik NYX hotel israeldarre-rako kalejiran, istilu larriak eragin zituz-ten. Bandera palestinarrak erre, auzotarrei eraso egin eta atarietako zein komertzioetako kristalak txikitu zituz-ten, besteak beste, sarreran Palestinako ikurra zuen taberna batekoak. Bilboko gertaerek, ordea, bestelako amaiera izan zuten, eta erasotzaileak onik atera ziren. Aldea nabarmena da. Hemen poliziak is-tilu-sortzaileak babestu zituen, eta he-rritarrei oldartu egin zitzaizkien. Argi gera zedin noren morroi diren.

Palestinan garbiketa etnikoaren eta bi-ziraupenaren arteko lehia jokoan dagoen bitartean, dema horrek mundu osoko jo-ko-zelaietan ere badu bere isla. Frantzian, kasu, agintariek 4.000 poliziatik gora mobilizatu zituzten pasa den ostegu-nean, Israelen aurkako partida zela-eta, Stade de France estadioan Palestinaren aldeko edozein lelo edo ikur isilarazteko. Zilegitasuna dago norgehiagokan. Eta borroka hori Israelek aspaldi galduta dauka. Batzuek baliabide errepresibo guztiak jartzen badituzte ere, elkartasun uholdea geldiezin da, eta goizago edo beranduago nor bere tokian jarriko du; Maccabiko jarraitzaileak, kasu, hegazkin batean Amsterdamdik koloniarako bueltan, solomoa berotuta •

Ekonomikaren markesa

Amagoia MUJIKATELLERIA

Goizean oso goiz sukaldera sartu eta beheko sua piztu. Ekonomikaren gainean babarrunak martxan jarri. «Sekretu bakarra denbora da». Lapikoko kafea eta irratia. Bakardaderik existitzen ez zen baserri iskanbilatsu hartan, bakarrik egoteko aukera bakarretakoa zen. Suaren ondoan jarri, kafesne-zopak gozatu, isiltasuna entzun. Irratiaren goizeko erritmo lasai hartan puntu pixka bat egin eta Bixkor zakur txikiaren konpainia isila igarri oinen inguruan. «Amona, zergatik esaten diezu Bixkor zakur guztiei?». «Eta zuk zergatik egiten dituzu hainbeste galdera?».

Ekonomikaren denborak beste zapore eta testura bat dauka. Lapikoen inguruan beti bazen norbait, atzera eta au-

rrera, beste hamaika lan erdizka egiten zituen bitartean, lapikoari zeharka begira. Tarteka koilarakada bat gatzaren puntua hartzeko. Tarteka ogi-koskorra saldaren gorputza testatzeko.

Orain arrautza frijitu pare honen hamaiketakorako; orain urdaiazpiko xerra pare zartaginean buelta eta buelta beste harentzat. Eta bitartean babarrunak gozo-gozo su suabea, etxeko martxaren lekuko isil eta usaintsu.

Makarroiaren “moda” iritsi zenean, ekonomikaren markesak ezin zuen ulertu nola egon zitekeen 10-13 minutuan kozinatze moduko zerbitzu. “Badaezpada” hobe beste hamar bat minutu utzi. Total, zer dira, bada, hamar minutu? Elkarrengana estu pegatzen ziren makarroiak eta dena masa bihurtu. «Ez dakit

nola gustatzen zaizkizuen hainbeste... alde ederrekoak babarrunak!».

Pasta egosten ari naiz. Hiru minutu. Gero eta denbora gutxiago. Tokitan geratu dira ekonomikako bor-bor orduak. Erosoagoa omen da dena orain. Azkarrago eta erosoago sinonimo bihurtu zaizkigu derrigor, “denborarik gabeko” munduan ematen baititugu gauak eta egunak. Telefonoko ahots mezuak eta podcastak erritmo azkartuan entzuten dituztenak arraro begiratu izan ditut. “Erotzen ari al gara?”, neurekiko. Eta orain hemen nago pasta egosten, hiru minutu. Eta bitartean sukaldetik atera naiz beste gauza pare bat egitera. Hiru minutu. Gustura galdetuko nioke ekonomikaren markesari zer iruditzen zaion . •